

## **1. BALIO PROPOSAMENA**

Askotan, eskolako gaiak ez ditugu ondo ulertzen edo zaila egiten zaigu hauek ikastea, beraz gure enpresak aplikazio hau sortzeko ideia izan du, ikasketak erraztu eta entretenigarriago bihurtzeko. Ikasle zein irakasleei lana erraztea da proiektu honen helburu nagusia, bideo eta laburpenen bidez gaiak errazago ulertzen laguntzen duen aplikazioa baita. Batxilergoko Gaztelania, Historia, Ingelesa, Euskara, Filosofia, Psikologia eta Artearen Historiako materialak izango dira eskainiko ditugunak.

Batez ere, euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko guke gure zerbitzua, eta ingelesez honi dagokion arloan. Normalean arlo honetako aplikazioak gaztelaniaz edo ingelesez bakarrik aurki ditzakegunez, gure proiektua berritzailea dela esan dezakegu. Bestale, gaiak pelikula bihurtzen dituen lehen aplikazioa izango litzateke.

Premium zerbitzuak 5,99€/hil edo 55€/urteko kostatuko luke. Modelo honetan, kalitate hobeko eta anuntziorik gabeko pelikulak edo bideoak ikusteko aukera egongo litzateke. Eta modelo arruntean aldiz, dohakoak izango litzateke, baina kalitate aldetik kaxkarragoak eta publizitate gehiagorekin. Bi modeloak erabiltzea erraza eta sinplea izango da, gauza basikoak bakarrik edukiko lituzke lehen orrialdean.

